AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5537

1699/2011 EBAZPENA, urriaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez onartzen dira mediku kategorian (fakultatibo espezialista medikoen hainbat lanpostu funtzionaletakoak) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak. Aipatu kategoria fakultatibo mediku eta teknikarien lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundeetan izango dira.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko beharrezkoa da kategoria bakoitzeko destinoak arautuko dituzten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, bat etorriz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoarekin eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoarekin,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-probak deitzea.

Bigarrena.– Medikuen kategorian (fakultatibo espezialista medikoen hainbat lanpostu funtzionaletakoak) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean daudenak. Aipatu kategoria fakultatibo mediku eta teknikarien lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundeetan izango dira.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean eskainitako destinoen zerrenda onartzea.

Laugarrena.– Merituen baremoa onartzea, ebazpen honen III. eranskinean dagoena.

Bosgarrena.– Dagokion gai-zerrenda onartzea, ebazpen honen IV. eranskinean dagoena.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epearen barruan, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak; Euskadiko Antolamendu

Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

MEDIKUEN (FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOEN HAINBAT LANPOSTU FUNTZIONALETAKOAK) KATEGORIAN LOTURA ESTATUTARIO FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK. AIPATU KATEGORIA FAKULTATIBO MEDIKU ETA TEKNIKARIEN LANBIDE TALDEKOA DA ETA DESTINOAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO OSASUN-ZERBITZUETAKO ERAKUNDEETAN IZANGO DIRA

1.– Deialdi honetan eskaintzen diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira medikuen (fakultatibo espezialista medikoen hainbat lanpostu funtzionaletakoak) kategoriako destinoak, fakultatibo mediku eta teknikarien lanbide taldekoak, eta destinoak II. eranskinean agertzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundetakoak izango dira. Destino horien kopurua eta ezaugarriak aldatu ahal dira 2011rako deitzen den lekualdatze-lehiaketa erabaki ahala.

1.2.– Deitutako destinoen % 5 pertsonal ezinduak betetzeko gordeko da. Oinarri orokorren arabera eskaini daitezkeen destinoak behin betiko zehazten direnean erabakiko da zenbatekoa den kopuru hori.

2.– Izangaiek bete beharreko baldintzak:

Izangaiek ebazpen honetan arautzen den deialdian parte har dezaten, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean, oinarri orokorretan eskatzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte, oinarri orokorretan jasotzen diren salbuespenak izan ezik, eta, kasua bada destinoa esleitzen dela, destinoaz jabetu arte mantendu behar dituzte:

a) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Medikuntza eta Kirurgian lizentziatuaren titulazioa eta lanpostu funtzionala betetzeko eskatzen den modalitateko espezialistaren titulua izatea edo izateko moduan egotea, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edozein kasutan ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak bete behar dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen 186/2005 Dekretuak, uztailaren 19koak, ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudiak ezarritako beste edozeinen arabera.

c) Inskripzio-eskubide hauek ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epe barruan, eskainitako destinoen titulazio-taldearen arabera:

A1 taldea (antzinako A taldea): 25 euro.

3.– Oposizio lehiaketaren nondik norakoa.

3.1.– Oposizioaldia.

1.– Oposizioaldian ariketa hauek egingo dira:

a) Lehenengo ariketa: Epaimahaiari dagokio probaren edukia eta iraupena zehaztea. Galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehienezko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira, gai zerrenda espezifikoa eta gai zerrenda orokorra dagozkio.

Era berean, aipatu eranskinean bibliografia ere sartuko da proba prestatzeko.

b) bigarren ariketa: epaimahaiak zenbait ariketa praktiko jarriko du. Galdetegiak edo beste tankera batekoak izango dira.

Ariketak lotuta egongo dira destinoetako funtzio espezifikoekin, eta helburutzat izango dute destino horietan aritu nahi dutenen gaitasunak, trebetasunak, ezagutza eta ahalmen profesionala baloratzea.

3.2.– Oinarri orokorretako 14. atalean aurreikusitako puntuazio-ordenaren araberako izangaien zerrendaren ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiek, 14.2 oinarrian zehaztutako dokumentazioaz gain, beste hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute:

– Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Medikuntza eta Kirurgian lizentziatuaren titulazioaren eta eta lanpostu funtzionala betetzeko eskatzen den modalitateko espezialista tituluaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

3.3.– Lehiaketaldia.

Egiaztatutako merituak III. eranskineko merituen baremoaren arabera balioztatuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera.

3.4.– Lanpostuaz jabetzea.

Oinarri orokorretako 17 atalean aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honen xede diren destinoetarikoren batez jabetzen direnek ondorengo agiria aurkeztu beharko dute jabetzako ekitaldian:

– Elkargoko kide izatearen ziurtagiria.

II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA: MEDIKUA

FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOEN HAINBAT LANPOSTU FUNTZIONALETAKOAK

Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, destino hauek deitzen dira:

F.E. Anatomia Patologikoko Medikua: 7 destino.
F.E. Angiologiako eta Hodietako Kirurgiako Medikua: 3 destino.
F.E. Aparatu Digestiboko Medikua: 18 destino.
F.E. Kirurgia Kardiobaskularrako Medikua: 4 destino.
F.E. Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestiboko Medikua: 12 destino.
F.E. Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologiako Medikua: 19 destino.
F.E. Kirurgia plastikoa, estetikoa eta konpontzaileko Medikua: 5 destino.
F.E. Dermatologia, Kirurgia eta Benereologiako Medikua: 4 destino.
F.E. Hematologia eta Hemoterapiako Medikua: 9 destino.
F.E. Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioko Medikua: 11 destino.
F.E. Medikuntza Intentsiboko Medikua: 11 destino.
F.E. Medikuntza Nuklearreko Medikua: 3 destino.
F.E. Nefrologiako Medikua: 6 destino.
F.E. Neumologiako Medikua: 10 destino.
F.E. Neurologiako Medikua: 13 destino.
F.E. Oftalmologiako Medikua: 11 destino.
F.E. Onkologia Medikoko Medikua: 4 destino.
F.E. Onkologia Erradioterapiko Medikua: 7 destino.
F.E. Psikiatriako Medikua: 32 destino.
F.E. Haurren Psikiatriako Medikua: 13 destino.
F.E. Erreumatologiako Medikua: 5 destino.
Deitutako destino-kopurua alda liteke, 2011n deituko den lekualdaketa-lehiaketaren ondorioz.

2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren osasun-zerbitzu erakundeetako destinoak hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzean zehaztuko dira.

III. ERANSKINA

MEDIKUEN (FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOEN HAINBAT LANPOSTU FUNTZIONALETAKOAK) KATEGORIAKO MERITUEN BAREMOA. AIPATU KATEGORIA FAKULTATIBO MEDIKU ETA TEKNIKARIEN LANBIDE TALDEKOA DA ETA DESTINOAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO OSASUN-ZERBITZUETAKO ERAKUNDEETAN IZANGO DIRA

1) Lan-esperientzia: gehienez, 45 puntu.

Eskabideak aurkezteko azken egunera arte izangaiek aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Dagokion espezialitateko etengabeko atentzioko behin-behineko izendapen batean egindako zerbitzuen puntuazioari zerbitzu horiengatik normalean ematen den puntuazioaren % 50 aplikatuko zaio.

Guztizko denbora zenbatzeko orduan, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan, eta ez dira zenbatuko hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.

Titulua irailaren 24ko 1497/1999 Errege Dekretuaren babesean eskuratu dutenen espezialistaren antzinatasunean, abenduaren 23ko 62/2003 Legean, zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzkoan, eta Ordena Sozialari buruzkoan, deialdiak aurrez ikusitako baldintzetan, interesdunak espezialitatearen berezkoa eta espezifikoa den eremuaren baitan gauzatutako lan profesional eraginkor osoa baloratuko da. Jardute horretatik kenduko da, hasierako aldian, Espainian espezialitate horretarako ezarritako prestakuntza aldiaren % 170. Aipatutako deskontua ez zaie egingo espezialista titulua 1497/1999 Errege Dekretuko hirugarren xedapen osagarriak aurrez ikusitakoaren arabera lortu dutenei.

1.– Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta komunitate autonomoetako osasun zerbitzuetako erakundeetan, edozein herri administraziotan, baita Europar Batasuneko beste estatuetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan ere, dagokion kategorian eta espezialitatean edo medikuntza alorreko kudeaketa-postuetan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,30 puntu.

2.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko edota beste edozein herri administraziotako osasun zerbitzuetako erakundeetan beste espezialitate batzuetan zein Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuetako sare publikoko osasun zerbitzuetan dagokion espezialitatean kupoko eta zonaldeko mediku gisa eskainitako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,15 puntu.

3.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko edota beste edozein herri administraziotako osasun zerbitzuetako erakundeetan edo osasun sistema nazionalari atxikitako ikerketa eta antolakuntzako zentro ofizialetan, zein Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuetako sare publikoko osasun zerbitzuetan atentzio espezializatuko beste zerbitzu batzuetan mediku orokor gisa edo beste espezialitate batzuetan mediku gisa edo pertsonal ikertzaile gisa eskainitako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

4.– Erakunde sanitario publikoetan kudeaketa eta zerbitzu orokorren alorrean goi-mailako kudeaketako lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko: 0,07 puntu.

Barne-sustapeneko txandan lehiatzen direnei, honela zenbatuko zaizkie eskainitako aurretiko zerbitzuak:

a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,02 puntu hilabete bakoitzeko.

b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,04 puntu hilabete bakoitzeko.

c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.

d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,06 puntu hilabete bakoitzeko.

e) A taldean eskainitako zerbitzuak: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

f) Lehiatzen den lanpostu berean egindako zerbitzuak: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu eginkizunetan edo goragoko kategoriako funtzioetan eskainitako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, zerbitzu berezietako egoeran eskainitako zerbitzuak jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza (gehienez, 35 puntu):

Atal honen barruan ondokoaren arabera egiaztatzen den prestakuntza balioztatuko da:

a) Graduatu aurreko prestakuntza (gehienez, 5 puntu):

Espediente akademikoaren balorazioa honela aterako da ondorengo hipotesien kasuan:

$$\frac{\text{(bikain kopurua x 6) + (Ohorezko matrikula kopurua x 9)}}{\text{Irakasgai guztien kopurua}}$$

Ez dira ebaluatuko eta, horrenbestez, ez dira zatitzailean agertuko ondorengo ikasgaiei dagozkien kalifikazioak edo baliozkotze ofizialaren helburu izan direnak: erlijioa, heziera politikoa, heziketa fisikoa, hizkuntzak, edo Medikuntzako Lizentziaturaren ikasketen oinarrizko edukiarekin lotura nabarmenik ez duten beste ikasgai batzuk.

b) Graduondoko prestakuntza (gehienez, 18 puntu):

– Doktorea: 15 puntu.
– Doktorea cum laude: 18 puntu.
– Gradu ondoko masterra: 7,5 puntu.
– Aditua/Espezialista unibertsitarioa: 5 puntu.
– Ikertzeko nahikotasuna/Diploma ikasketa aurreratuetan: 5 puntu.
– Lizentziatura gradua: 3 puntu.
– Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko 0,50 puntu, eta gehienez 10 ikastaro.
– Goi-mailako beste titulazio elkartu bat: 4 puntu.

Ez dira baloratuko doktoradutza-ikastaroak baldin eta balio izan badute Doktore-titulua lortzeko, edo Doktorea cum laude, edo Ikertzeko Nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan.

c) Prestakuntza espezializatua:

1.– Kategorian sartzeko eskatzen ez den legez aitortutako bestelako espezialitateren bateko tituluren bat edo batzuk dituzten izangaiak, baldin eta aldez aurretik fakultatiboentzako ofizialki onartutako prestakuntza-programako egoiliar gisa bete badute: 2 puntu.

2.– Kategorian sartzeko eskatzen ez den espezialistaren bestelako titulu bat edo titulu batzuk dituzten izangaiak (BAME bidez ez): puntu 1.

d) Etengabeko prestakuntza (gehienez, 20 puntu):

Eskatutako destinoko kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

- 9 ordura arte:	0,25 puntu.
- 10-19 ordu:	0,75 puntu.
- 20-29 ordu:	1,25 puntu.
- 30-49 ordu:	2 puntu.
- 50-99 ordu:	3 puntu.
- 100-249 ordu:	4 puntu.
- 250-599 ordu:	5 puntu.
- 600 ordu edo gehiago:	6 puntu.

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,30 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko, ikastaroko gehienez 20 kreditu onartuko direlarik.

Ikastaroaren gutxieneko ordu-kopurua edo kredituen baliokidetza ordutan adierazten ez duten ziurtagirietan edo bai ordu-kopurua bai prestakuntza ematen duen administrazio publikoak onartutako kredituen baliokidetza ordutan jasotzen dutenetan, epaimahaiak, aurkeztutako ziurtagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,25 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak baloratuko dira, eta baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa plan baten barrukoak ez badira.

e) Irakaslanak (gehienez 10 puntu):

– Fakultateko / Unibertsitate Eskolako katedraduna: (urteko) puntu 1.

– Fakultateko / Unibertsitate Eskolako irakasle titularra edo elkartua: (urteko) 0,50 puntu.

– Kreditatutako tutorea egoiliarrentzako irakaskuntzan, kasua bada, dagokion espezialitatean: (urteko) 0,750 puntu.

– Irakaskuntza etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan: (ordu bakoitzeko) 0,050 puntu.

f) Jarduera zientifikoak eta ezagutza hedatzekoak (gehienez, 15 puntu):

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak, txosten-aurkezpenak, komunikazioak, hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

– Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu.

– Espainiako txosten bakoitzeko: 2 puntu.

– Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu.

– Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu.

– Espainiako ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu.

– Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu.

– Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu.
– Espainiako mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu.
– Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu.
– Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
– Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): puntu 1.
– Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu.
– Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu.
– Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
– Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): puntu 1.
– Tesina bakoitzeko: 3 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

g) Lanbide garapena (gehienez, 28 puntu):

Izangaiek hautatu ahalko dute oinarri espezifikoetan aitortutako lanbide garapenaren mailari dagokion puntuazioa esleitzea, d) (etengabeko prestakuntza), e) (Irakaslana) eta f) (Jarduera zientifikoa eta ezagutza hedatzekoa) atalen arabera egokituko litzaiekeenaren ordez:

– IV. Maila: 28 puntu.
– III. Maila: 22 puntu.
– II. Maila: 18 puntu.
– I. Maila: 14 puntu.

Aukera hori 12.5.2 oinarrian dokumentazioa aurkezteko ezarritako 10 egun balioduneko epean gauzatuko da.

h) Hizkuntzak (gehienez, 10 puntu):

– Ingelesa: gehienez 6 puntu.
– Frantsesa: gehienez 6 puntu.
– Alemana: gehienez 6 puntu.

i) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

3) Euskara.

– 2HE: 18 puntu.
– 1HE: 9 puntu.

IV. ERANSKINA

I. FAKULTATIBO MEDIKU LANBIDE TALDEETAKO MEDIKU ESPEZIALISTA GAI ZERRENDA

ESPEZIALITATEA: ANATOMIA PATOLOGIKOA

1.– Anatomia patologiko orokorra:

1.1.– Patologia zelularra.

1.2.– Alterazio metabolikoen zeinu morfologikoak.

1.3.– Mekanismoak, zeinu morfologikoak, zirkulazioaren trastorno orokor eta lokalen ondorioak eta irizpide diagnostikoak.

1.4.– Prozesu inflamatorio eta infekziosoen aspektu kontzeptualak, zeinu morfologikoak eta ondorioak.

1.5.– Zitokinen eginkizuna, hazkundearen eta atxikiduraren molekulen faktoreak.

1.6.– Inmunopatologia.

1.7.– Neoplasien aspektu kontzeptualak, irizpide diagnostikoak eta aspektu pronostikoak.

1.8.– Kartzinogenesia. Onkogeneak. Tumore barreiadura. Diagnostiko goiztiarra. Minbiziaren epidemiologia.

1.9.– Neoplasien adierazle histogenetikoak. Tumoreen diagnostiko diferentzialari aplikaturiko inmunohistokimika.

1.10.– Zitogenetika. Tumore epitelialen azterketa orokorra. Tumore mesenkimalen azterketa orokorra.

1.11.– Ingurunearen eta nutrizioaren patologia.

1.12.– Zahartzearen patologia.

2.– Bihotz-hodietako patologia:

2.1.– Malformazioak, Kardiopatia iskemikoa, Patologia balbularra, Miokardiopatiak, Miokarditisa, Errefus kardiakoaren patologia, Endokarditisa, Perikarditisa, Eroapen kardiakoaren sistema.

2.2.– Likido perikardikoaren zitologia.

3.– Arnasketaren patologia:

3.1.– Sudur barrunbeko gaixotasun inflamatorio eta tumoralak, sinu paranasalak, nasofaringea, laringea eta trakea.

3.2.– Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, bronkioektasiak, bronkitisa. Atelektasia eta enfisema. Asma bronkiala. Biriketako infekzioak, tuberkulosia. Patologia interstiziala. Neumokoniosisa. Birikako hodietako patologia.

3.3.– Birikako neoplasiak. Pleuraren gaixotasun neoplasikoak eta ez neoplasikoak.

3.4.– Arnasketa aparatuaren zitopatologia, espektorazioaren zitologia esfoliatiboa; garbiketa, xurgaketa eta eskuilaketa bronkoalbeolarra. Ziztada bidezko zitologia. Likido pleuralaren zitologia. Masa mediastiniko eta biriketakoen ziztada zitologikoa.

4.– Patologia digestiboa:

4.1.– Kiste eta tumore odontogenikoak. Listuaren guruinen patologia. Listuaren guruinen ziztada bidezko zitologia.

4.2.– Hestegorriko patologia: esofagitisa, Barrett-en hestegorria, tumore onberak eta gaiztoak.

4.3.– Patologia gastriko ez-tumorala: garapenaren anomaliak, gastritisa, ultzerak. Urdail tumoralaren patologia: tumore onberak, kartzinoma gastrikoa, lestroma gastrointestinalaren tumoreak, bestelako tumore gaiztoak.

4.4.– Hestearen patologia ez-tumorala: sortzetiko malformazioak, malabsortzioaren sindromea, gaixotasun zeliakoa. Hanturazko gaixotasuna, enteritisa, apendizitisa, Crohn-en gaixotasuna, kolitis ultzerosoa, kolitis iskemikoa, ultzera bakartia. Hesteko patologia tumorala: polipoak eta sindrome poliposikoak. Bestelako tumore onberak eta gaiztoak. Anpuloma. Kartzinoma kolorrektala. Tumore kartzinoidea. Uzkiko patologia.

4.5.– Gibeleko patologia: hepatitisa, metabolopatia sortzetikoak eta toxikoak. Zirrosia.

4.6– Tumore hepatiko onbera eta gaiztoak. Tumore metastasikoak. Behazun-maskuriko eta behazun-bideen patologia.

4.7.– Pankrea exokrinoko patologia tumorala eta ez-tumorala. Peritoneoko patologia.

4.8.– Organo abdominalen ekografia/eskaner bidezko zitologia. Aparatu gastrointestinalaren fibroskopia bidezko zitologia.

4.9.– Peritoneo-atzeko espazioko patologia.

5.– Gernu-aparatuko patologia:

5.1.– Giltzurrun-garapenaren eta gernu-bide iraizleen anomaliak.

5.2.– Glomerulopatia primario eta sekundarioak. Giltzurrun-patologia baskularra. Giltzurrun-lesioak HTA-n. Giltzurrun-gaixotasun tubulointerstizialak.

5.3.– Giltzurrun eta bide iraizleetako neoplasia onberak eta gaiztoak. Urolitiasia. Hidronefrosia. Giltzurrun-trasplantearen patologia. Nefritisa. Nekrosi tubular akutua.

5.4.– Giltzurrunaren ziztada bidezko zitologia. Gernuaren zitologia esfoliatiboa.

6.– Gizonezkoen aparatu genitaleko patologia:

6.1.– Prostatako patologia tumorala eta ez-tumorala.

6.2.– Barrabil eta zakileko patologia tumorala eta ez tumorala.

6.3.– Prostata eta barrabilaren ziztada bidezko zitologia.

7.– Emakumezkoen titietako eta aparatu genitaleko patologia:

7.1.– Bulba eta baginako patologia.

7.2.– Umetoki-lepoko patologia.

7.3.– Patologia funtzional endometriala. Umetoki-gorputzeko tumoreak. Tronpako anatomia patologikoa.

7.4.– Obulutegiko tumore onberak eta gaiztoak.

7.5.– Titietako patologia: gaixotasun fibrokistikoa, titietako tumore onberak eta gaiztoak. Ginekomastia, mastitisa eta malformazioak.

7.6.– Bulba, bagina, zerbix eta endometrioaren zitologia esfoliatiboa. Tumore obarikoen ziztada. Bularretako zitologia: titiburu-sekrezioa eta bularreko ziztada.

8.– Sistema linfoide eta hematopoietikoko patologia:

8.1.– Gongoil linfatikoko patologia ez-tumorala.

8.2.– Hodgkin-en gaixotasuna. Ez-Hodgkin linfomak.

8.3.– Hezur-muineko patologia: Leuzemiak eta gaixotasun mieloproliferatiboak. Metaplasma mieloidea mielofibrosiarekin. Histiozitosia. Anemiak.

8.4.– Bare eta timoko patologia. Gongoil linfatikoen ziztada bidezko zitologia.

9.– Patologia endokrinoa:

9.1.– Hipofisiko patologia. Gangliozitoma Adenomak. Kraneofaringioma. Zelula granularren tumoreak. Hamartoblastoma. Germinoma. Meningiomak. Erradiazio ondoko tumoreak, linfomak eta tumore metastasikoak. Beste lesio batzuk: Langerhans-en zelulen histiozitosia, sarkoidosia, kiste hidatidikoa, zistizerkosia.

9.2.– Paratiroideetako patologia.

9.3.– Tiroideko patologia: sortzetiko anomaliak, tiroiditisa, bozioak, neoplasia epitelial onberak eta gaiztoak, linfoideak eta metastasikoak. Aldaketa iatrogenikoak. Ziztada-xurgapen bidezko zitologia.

9.4.– Pankrea endokrinoko patologia: diabetea, nesidioblastosia. Tumoreak. Pankrearen ziztada-xurgapen bidezko zitologia.

9.5.– Guruin suprarrenaletako patologia: ektopia, sortzetiko hiperplasia kortikala, hartutako eta barreiatutako nodularra, adenomak. Kartzinoma suprarrenala. Muin suprarrenaleko tumoreak. Addison-en gaixotasuna eta Cushing-en gaixotasuna. MEN I eta II. Guruin suprarrenalen ziztada-xurgapen bidezko zitologia.

10.– Neuropatologia:

10.1.– Nerbio-sistema zentraleko trastorno baskularrak.

10.2.– Hanturazko prozesuen anatomia patologikoa. Gaixotasun bakterianoak, mikosia, parasitoak, birusak eta rickettsiak. Prioien bidezko entzefalopatiak.

10.3.– Endekapenezko gaixotasunak. Garuneko atrofia. Alzheimer-en gaixotasuna. Pick-en gaixotasuna. Dementzia multiinfartua. Parkinson-en gaixotasuna. Huntington-en korea. Endekapen espinozerebelosoak. Gaixotasun desmielinizatzaileak. Leukodistrofiak.

10.4.– Jatorri toxiko, nutritibo eta metabolikoko gaixotasunen anatomia patologikoa.

10.5.– Nerbioko patologia ez-tumorala.

10.6.– Nerbio sistema zentraleko eta periferikoko tumoreak. Nerbio sistemako tumoreen zitologia. LZR-ren zitologia.

11.– Patologia muskularra:

11.1.– Denerbazioaren ondoriozko atrofia.

11.2.– Miopatiak: hanturazkoak eta metabolikoak.

11.3.– Muskuluetako distrofiak. Sortzetiko miopatiak.

11.4.– Muskuluetako tumore onberak eta gaiztoak.

12.– Patologia osteoartikularra:

12.1.– Osteogenesiaren trastornoak eta hezurren birmoldaketa. Osteomielitis akutua eta kronikoa, hezur-tuberkulosia. Hidatidosia. Nekrosi abaskularra. Hiperparatiroidismo primarioa. Errakitismoa. Osteoporosia. Giltzurrun-osteodistrofia. Osteomalazia. Hiperparatoidismo sekundarioa. Amiloidosia. Hezurretako Paget-en gaixotasuna.

12.2.– Artikulazioetako patologia degeneratiboa, hanturazkoa: artritis erreumatoidea, burtsitisa, espondilitis ankilopoietikoa, artritis infekziosoa. Hezueria. Okronosia. Kondrokaltzinosia.

12.3.– Proliferazioak eta tumore onbera artikularrak. Hezur-tumore onbera eta gaiztoak.

12.4.– Tumore gaizto artikularrak.

13.– Larruazaleko patologia:

13.1.– Larruazaleko histologia funtzionala. Larruazaleko lesio elementalak. Prozesu patologiko epidermikoak. Prozesu patologiko dermikoak. Baba-gaixotasunak. Baskulitisa. Toxikodermiak. Kolagenosia. Metatze-gaixotasunak. Histiozitosia. Panikulitisa. Genodermatosia.

13.2.– Tumore anexial onbera eta gaiztoak. Tumore melaniko onberak eta gaiztoak. Larruazaleko linfomak.

14.– Anatomia patologiko oftalmikoa eta belarrikoa:

14.1.– konjuntiba, kornea, ubea eta kristalinoko anatomia patologikoa. Glaukomaren patologia. Erretina, nerbio optiko eta orbitako patologia.

14.2.– Kanpo, erdi eta barruko belarriaren anatomia patologikoa.

15.– Garapenaren patologia:

15.1.– Kromosomopatiak. Sindrome malformatiboak. Anatomia patologiko fetal eta neonatala.

15.2.– Kareneko patologia.

16.– Organoen transplantearen patologia orokor eta berezia. giltzurruneko transplantea, bihotzekoa, medularra, biriketakoa, hesteetakoa, pankreatikoa eta bestelakoak.

17.– Pediatriako patologia:

17.1.– Sortzetiko malformazioak.

17.2.– Asfixia perinatalaren ondoriozko burmuineko lesioak.

17.3.– Jaiotza-inguruko infekzioak. Jaio berriaren arnas distressaren sindromea. Eritroblastosi fetala. Jaio berriaren gaixotasun hemolitikoa. Haur-kolangiopatia buxatzailea.

17.4.– Metabolismoaren sortzetiko akatsak: Fenilzetonuria, galaktosemia, mukobiszidosia.

17.5.– Bularreko haurraren bat-bateko heriotzaren sindromea.

17.6.– Garapen ponderala eta haurdunaldi-adina. Umetoki barneko hazkundearen berandutzea. Heldugabeko organoak.

17.7.– Jaio berriaren eta haurraren tumore eta lesio seudo tumoralak.

18.– Parte bigunetako patologia:

18.1.– Tumore adiposoak.

18.2.– Ehun fibroso eta miofibroblastikoko tumoreak eta proliferazio anomaloak. Tumore fibrohistiozitikoak.

18.3.– Muskulu liso eta ildaskatuko tumoreak.

18.4.– Tumore perizitikoak. Muskulu eskeletikoko tumoreak. Tumore baskularrak.

18.5.– GIST onbera eta gaiztoa. Bestelako tumore misto, konposatu eta jatorri ezezagunekoak.

18.6.– Parte bigunetako lesioen ziztada eta xurgapen bidezko zitologia.

19.– Egungo ospitaleko anatomia patologikoa:

19.1.– Anatomia Patologikoko prozesuak: Autopsien, biopsien, tresna kirurgikoen eta zitologiaren oinarri metodologikoak. Deskribapena, disekzioa, finkapena, ebaketa, tindaketa ohikoak. Histokimika.

19.2.– Inmunohistokimika. Inmunofluoreszentzia. Nerbio, giltzurrunaren mikroskopia elektronikoa.

19.3.– Patologia molekularraren aplikazioak: hibridazioa in situ, proteomika eta genomikako teknika orokorrak.

19.4.– Automatizazioa Zitologian. Lagin zitologikoak hartzea. Zitologia likidoa. Ziztada-xurgapeneko kontsulta.

19.5.– Ziztada bidezko autopsia, ekopsia, arrisku-autopsiak.

19.6.– Klinikoaren eta patologoaren arteko informazio-fluxua. Batzorde kliniko-patologikoak. Departamentu barruko eta departamentu arteko saioak. Saio orokorrak. Ezagutzaren zabalkuntza. Kudeaketa.

19.7.– Oinarrizko ikerkuntza, klinikoa eta esperimentala.

ESPEZIALITATEA: ANGIOLOGIAKO ETA HODIETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA

1.– Gaixotasun baskularren teknika diagnostiko ez odoltsuak.

2.– Gaixotasun baskularren operazio aurreko azterketa.

3.– Angiografiaren printzipioak.

4.– Injertoen eta protesien portaera biologikoa. Garapena eta bilakaera.

5.– Aterosklerosia: kontuan hartu beharreko ezaugarri biologikoak eta kirurgikoak.

6.– Baskulitisa: etiopatogenia, klinika eta tratamendua.

7.– Baskulopatia funtzionalak. Raynoud-en sindromea eta gaixotasuna.

8.– Tronbogenesia, berregite baskularra, antikoagulanteak eta fibrinolitikoak.

9.– Hemodinamikaren printzipioak kirurgia baskularrean.

10.– Iskemia akutuaren sindromea: etiopatogenia, klinika, diagnostikoa, eboluzioa eta tratamendua.

11.– Traumatismo baskularrak: klinika, diagnostikoa eta tratamendua. Zanpaketaren sindromea. Gorputz-adarretako berrezarpena.

12.– Iskemia kronikoaren sindromea: etiopatogenia, diagnostikoa, eboluzioa eta tratamendua.

13.– Beheko gorputz-adarretako aterosklerosiaren forma klinikoak. Forma aorto-iliakoa. Forma femoro-popliteoa. Forma tibio-peroneala. Klinika. Diagnostikoa eta tratamendua. Horrekin lotura duten lesioak.

14.– Anestesia Kirurgia baskularrean.

15.– Arterien esposizio-metodoak.

16.– Kirurgia arterialaren oinarrizko teknikak: josturak eta anastomosi baskularrak. Mikrokirurgia baskularra. Embolektomia arteriala, tromboendarterektomia, partxe-injerto bidezko angioplastia, pontajeak. Teknika endobaskularren maneiua (angioplastiak, endoprotesiak ezartzea, etab.).

17.– Jatorri extrakranealeko garuneko hodietako iskemia. Klinika, diagnostikoa eta tratamendua.

18.– Goiko gorputz-adarretako iskemia kronikoa. Klinika, aiagnostikoa eta tratamendua.

19.– Hesteetako iskemia akutu eta kronikoa. Etiopatogenia klinikoa. Diagnostikoa eta tratamendua.

20.– Hipertentsio errenobaskularra: etiologia, fisiopatologia klinikoa, diagnostikoa. Indikazioak eta tratamendu kirurgikoa.

21.– Sorbaldako konpresio neurobaskularra: kontuan hartu beharreko ezaugarri anatomikoak. Forma klinikoak. Diagnostikoa. Tratamendua.

22.– Aneurisma arterialak. Forma klinikoak, diagnostikoa eta tratamendua.

23.– Angiodisplasien maneiua: etiopatogenia, Diagnostikoa eta tratamendua.

24.– Izozketak: etiopatogenia klinikoa. Profilaxia eta tratamendua. Inmertsio-oina eta lubakietako oina.

25.– Portako hipertentsioaren kirurgia.

26.– Sarbide arteriala hemodialisirako.

27.– Tumore baskularrak: lehen eta bigarren. Klinika, diagnostikoa eta tratamendua.

28.– Hodietako kirurgia eta linfatikoa: odolik gabeko miaketa. Flebografia. Linfografia isotopikoa.

29.– Bena barikosoak. Etendura benosoak. Klinika eta tratamendua.

30.– Sakoneko tronbosi benosoa. Erabilera.

31.– Tronbosi benoso iskemikoa: flegmasia cerulea dolens eta benen gangrena.

32.– Zangoko ultzeradun sindrome posflebitikoaren fisiopatologia.

33.– Benen gutxiegitasun sakon kronikoa.

34.– Injerto benosoaksindrome postflebitikoaren tratamenduan.

35.– Fasziotomia.

36.– Linfedema.

37.– Beheko gorputz-adarra moztea. Operazio ondoko berehalako egokitzea eta deanbulazio goiztiarra.

38.– Beheko gorputz-adarra moztuta daukatenentzako protesia.

39.– Kalitatearen kudeaketa Kirurgia baskularrean.

40.– Espezialitatearen berezko prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak. Teoria eta praktika.

ESPEZIALITATEA: APARATU DIGESTIBOA

1.– Aparatu digestiboko eta gibeleko anatomia, fisiologia eta farmakologia. Sintoma eta zeinu abdominal eta gastrointestinalak. Gaixotasun sistemikoen afektazio gastrointestinal eta hepatikoa. Lesio baskular eta iskemikoak, gastrointestinalak eta hepatikoak.

2.– Esofagoa:

2.1.– Errefluxu gastroesofagikoagatiko gaixotasuna.

2.2.– Esofagoko trastorno motorrak.

2.3.– Bestelako esofagitisak.

2.4.– Tumoreak.

3.– Patologia gastrikoa:

3.1.– Trastorno funtzionalak.

3.2.– Gastritisa. AINE-engatiko gastroenteropatia.

3.3.– Tumoreak.

3.4.– Ultzera Peptikoa.

3.4.1.– Konplikazioak.

3.4.2.– Kirurgia gastrikoaren ondoko sindromea.

3.5.– Helicobacter pylori.

4.– Heste meharreko patologia:

4.1.– Hanturazko gaixotasunak.

4.2.– Gaixotasun zeliakoa. Gaixotasun autoinmuneak eta alergiak.

4.3.– Tumoreak.

4.4.– Hesteetako malabsortzioa.

4.5.– Heste meharreko ultzerak.

4.6.– Erradiazioaren ondoko enteritisa.

5.– Heste lodiko eta ondesteko patologia:

5.1.– Beherako infekziosoak.

5.2.– Trastorno funtzionalak.

5.3.– Hesteetako gaixotasun inflamatorio kronikoak.

5.4.– Tumoreak.

5.5.– Gaixotasun dibertikularra.

6.– Behazun-maskuria eta behazun-bideak. Garapenaren anomaliak:

6.1.– Behazun-litiasia eta konplikazioak.

6.2.– Tumoreak.

6.3.– Prozesu inflamatorio eta infekziosoak.

6.4.– Trastorno motorrak.

7.– Pankrea:

7.1.– Sortzetiko anomaliak.

7.2.– Pankreatitis akutua eta kronikoa.

7.3.– Tumoreak.

8.– Gibela:

8.1.– Egitura-lesioak.

8.2.– Ikterizia familiarrak.

8.3.– Kolestasia.

8.4.– Hepatitis birala.

8.5.– Hepatopatia autoinmuneak.

8.6.– Gibeleko zirrosia. Konplikazioak.

8.7.– Patologia infekziosoa.

8.8.– Tumoreak.

8.9.– Trastorno metabolikoak.

8.10.– Hepatologia toxikoa, alkoholikoa eta farmakoen ondoriozkoa.

8.11.– Gibeleko transplantea.

8.12.– Gibeleko gutxiegitasun akutua.

8.13.– Hipertentsio portalaren sindromea.

9.– Mesenterioko patologia. Peritonitisa. Tumoreak.

10.– Espezialitateak berez dituen prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak. Teoria eta praktika.

ESPEZIALITATEA: KIRURGIA KARDIOBASKULARRA

1.– Gorputz kanpoko zirkulazio kontzeptua. Miokardioaren babesa.

2.– Hodi arterial iragazkorra.

3.– Koartazio aortikoa.

4.– Aurikula arteko komunikazioa.

5.– Kanal aurikulobentrikular partzial eta osoko defektuak.

6.– Birika benetako drainadura anomaloa.

7.– Bentrikulu arteko komunikazioa.

8.– Arteria nagusien transposizioa.

9.– Atresia trikuspidea.

10.– Birika arteriaren estenosia.

11.– Falloten tetralogia.

12.– Miokardiopatia hipertrofikoaren kirurgia.

13.– Balbula mitralaren kirurgia.

14.– Balbula trikuspidearen kirurgia.

15.– Balbula aortikoaren kirurgia.

16.– Ordezko balbular kardiakoak.

17.– Aorta torazikoaren aneurisma: goranzkoa, arkua eta beherakoa. Kirurgia klasikoa, prozedura endobaskularrak eta prozedura mixtoak.

18.– Abdomeneko aortaren aneurisma. Kirurgia klasikoa, prozedura endobaskularrak eta prozedura mixtoak.

19.– Aneurisma torakoabdominalak. Kirurgia klasikoa, prozedura endobaskularrak eta prozedura mixtoak.

20.– Kirurgia koronarioa.

21.– Miokardio infartuaren konplikazioen kirurgia.

22.– Zirkulazioko laguntzaren teknikak.

23.– Arritmien kirurgia. Estimulazio kardiako elektrikoa. Fibrilazio aurikularraren ablazioaren teknika kirurgikoak.

24.– Bihotzeko transplantea.

25.– Iskemia arteriak akutua.

26.– Iskemia arterial kronikoa.

27.– Karotidearen kirurgia.

28.– Bena gutxiegitasuna. Tronboflebitisa. Benaren tronbosi sakona.

29.– Biriketako enbolismoa.

30.– Perikardioaren kirurgia.

31.– Tumore kardiakoak.

ESPEZIALITATEA: KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOA

1.– Kudeaketa klinikoa Kirurgian. Adierazleak. Prozesuak. Kirurgia handi anbulatorioa.

2.– Shocka.

3.– Fluidoak eta elektrolitoak kirurgian.

4.– Ebakuntza aurreko eta ondoko printzipioak. Arrisku kirurgikoa.

5.– Printzipio hematologikoak kirurgian: Odoljarioa, hemostasia eta transfusioa.

6.– Paziente kirurgikoaren metabolismoa. Nutrizio enterala. Nutrizio parenterala.

7.– Anestesia lokal, erregional eta orokorraren alderdi kirurgikoak. Ebakuntza ondoko analgesia.

8.– Zauriak orbaintzea.

9.– Kirurgia minimoki inbaditzailea.

10.– Konplikazio kirurgikoak.

11.– Infekzio kirurgikoak eta antibiotikoak aukeratzea.

12.– Paziente inmunodeprimituaren arazo kirurgikoak.

13.– Larri traumatizatutako pertsonaren tratamendua.

14.– Erredurak. Izozketak.

15.– Transplanteak:

15.1.– Inmunosupresioaren printzipioak.

15.2.– Gibeleko transplantea.

15.3.– Pankrea-transplantea eta pankrea-irlen transplantea.

15.4.– Heste-transplantea.

16.– Tiroidea:

16.1.– Anatomia eta fisiologia tiroideoa.

16.2.– Gaixotasun tiroideo onberak.

16.3.– Bozioa. Nodulu tiroideoa.

16.4.– Neoplasia tiroideo gaiztoak.

16.5.– Neoplasia endokrino multipleak.

17.– Paratiroidea:

17.1.– Anatomia eta fisiologia paratiroideoa.

17.2.– Hiperparatiroidismoa.

17.3.– Tumore paratiroideoak.

18.– Suprarrenalak:

18.1.– Anatomia eta fisiologia suprarrenala.

18.2.– Azal eta muin suprarrenaletako gaixotasunen alderdi kirurgikoak.

18.3.– Tumore suprarrenalak.

19.– Esofagoa:

19.1.– Anatomia eta fisiologia. Azterketa osagarriak.

19.2.– Esofago-zulaketa. Kaustikoak irenstearen ondoriozko lesioak.

19.3.– Esofagoko trastorno motorrak. Akalasia. Disfagia orofaringeoa.

19.4.– Esofagoko dibertikuluak.

19.5.– Esofagoko tumoreak.

19.6.– Hiatu-etena. Errefluxu gastroesofagikoa. Barrett-en esofagoa.

20.– Urdaila eta duodenoa:

20.1.– Ultzera peptikoa.

20.2.– Tumore gastriko onberak.

20.3.– Tumore gastriko gaiztoak.

21.– Obesitate morbidoaren kirurgia.

22.– Goiko digestio-bideetako odoljarioa.

23.– Heste meharra:

23.1.– Anatomia eta fisiologia.

23.2.– Hesteetako buxadura.

23.3.– Crohn-en gaixotasuna.

23.4.– Heste meharreko dibertikuluak.

23.5.– Heste meharreko tumoreak.

23.6.– Erradiazio-enteritisa. Iskemia mesenterikoa.

24.– Kolona eta ondestea:

24.1.– Anatomia. Miaketa Osagarriak.

24.2.– Kolon eta ondesteko lesio polipoideak. Minbizi aurreko lesioak.

24.3.– Koloneko gaixotasun dibertikularra.

24.4.– Bolbuluak. Kolitis iskemikoa.

24.5.– Kolon eta Ondesteko Minbizia.

24.6.– Ultzeradun kolitisa.

24.7.– Apendizitis akutua. Apendizeko tumoreak.

24.8.– Beheko digestio-bideetako odoljarioa.

25.– Uzkia:

25.1.– Fisiologia eta miaketa funtzionalak.

25.2.– Ondeste-prolapsoa. Errektozelea. Libratze-arazoak. Proktalgia. Uzkiko pruritoa.

25.3.– Uzki-ondesteko traumatismoak. Lesio obstetrikoak. Eginkari-inkontinentzia.

25.4.– Odoluzkiak. Uzkiko arteka.

25.6.– Sinus pilonidala. Hidrosadenitisa. Uzkiko abszesua eta fistula.

25.7.– Uzkiko minbizia.

26.– Gibela:

26.1.– Anatomia eta fisiologia.

26.2.– Gibeleko kiste eta abszesuak.

26.3.– Gibeleko tumore onberak.

26.4.– Gibeleko tumore primarioak. Metastasi hepatikoak.

27.– Behazun-bideak:

27.1.– Kolelitiasia. Kolezistitisa. Koledokolitiasia. Kolangitisa. Behazun-ileoa.

27.2.– Behazun-maskuriko eta behazun-bideetako tumoreak.

27.3.– Min hori mekanikoa.

28.– Pankrea:

28.1.– Pankreatitis kronikoa.

28.2.– Pankreatitis akutua.

28.3.– Pankreako kisteak eta pseudokisteak.

28.4.– Pankreako tumore onberak.

28.5.– Pankreako tumore gaiztoak.

28.6.– Anpulomak.

29.– Barea.

30.– Herniak:

30.1.– Abdomen-paretako eta diafragmako herniak.

30.2.– Hernia ezohikoak.

30.3.– Ebentrazioa. Ebiszerazioa.

31.– Abdomen-pareta, zilborra, peritoneoa, mesenterioa, epiploia, peritoneo-atzea eta diafragma:

31.1.– Abdomen-paretako tumoreak.

31.2.– Tumore peritonealak. Mesotelima. Kartzinomatosia.

31.3.– Tumore mesenterikoak. Mesenteritisa.

31.4.– Peritoneo-atzeko tumoreak.

32.– Abdomeneko afekzio akutua:

32.1.– Abdomen akutua.

32.2.– Peritonitisa.

32.3.– Abdomen barruko abszesuak.

32.4.– Abdomeneko traumatismoa.

33.– Larruazala:

33.1.– Larruazaleko tumore onberak.

33.2.– Larruazaleko tumore gaiztoak. Melanoma.

34.– Sistema linfatikoko gaixotasunak.

35.– Gaixotasun benosoak.

36.– Biriketako enbolia.

37.– Koipe-enbolia.

38.– Zati bigunetako tumoreak. Sarkoma.

ESPEZIALITATEA: KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA

1.– Hezur eta artikulazioetako patologia traumatikoaren printzipioak. Hezur-hausturak: Motak, kontsolidazioa, klinika, tratamendua, konplikazioak. Traumatismo artikularrak: motak, kontsolidazioa, klinika, tratamendua, konplikazioak. Ehun bigunetako lesioa. Errekuperazio funtzionala.

2.– Politraumatizatutako pazientearen maneiua.

3.– Bizkarrezurreko eta pelbiseko traumatismoak eta lesioak. Hausturak. Lokadurak. Hernia diskala. Paraplegia traumatikoa.

4.– Sorbaldako traumatismoak. Hausturak eta lokadurak. Sindrome subakromiala.

5.– Besoko eta ukondoko traumatismoak. Hausturak eta lokadurak.

6.– Besaurreko eta eskumuturreko traumatismoak. Hausturak eta lokadurak.

7.– Eskuko traumatismoak. Hausturak eta lokadurak. Nerbio-harrapaketaren sindromeak.

8.– Aldakako eta izterreko hausturak. Hausturak eta lokadurak. Aldaka-haustura pertsona zaharren kasuan.

9.– Belauneko hausturak. Hausturak eta lokadurak:

9.1.– Meniskoko lesioak.

9.2.– Lokailu-lesioak.

9.3.– Aurreko lokailu gurutzatuko lesioak.

10.– Tibia eta peroneko hausturak.

11.– Orkatilako hausturak. Hausturak eta lokadurak.

12.– Oineko hausturak. Hausturak eta lokadurak.

13.– Osteosíntesia.

14.– Hezur-injerto eta ordezkoak. Osteoeragileak ortopedian.

15.– Aldaka eta belauneko artrosiaren kirurgia kontserbatzaile ez-ordezkatzailea. Talka femoroazetabularra. Aldaka eta belauneko ordezkatze protesikoa. Injertoen eta material protesikoaren portaera biopatologikoa eta mekanikoa. Konplikazio aseptikoak. Artikulazio-ordezkatzearen ondoko konplikazioak.

16.– Artroskopia. Oraingo egoera.

17.– Jarrerari lotutako bizkarrezurreko eta beheko gorputz-adarreko prozesuak. Eskoliosia. Espondilosia eta espondilolistesia Ortesia.

18.– Hezurren eta artikulazioen sortzetiko alterazioak (kartilaginosoak, tendinosoak). Aldakako, oin lauko, oin sakoneko sortzetiko lokadurak. Ortesia.

